LG-SS-197-2003

# zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

## APIRILA 2020

Zk. 185 / UDABERRIA 2020 APIRILA
Ernio Bidea 9A, behea, 20159 ZIZURKIL
www.zizurkil.eus / 943 691012




# ETXEAN GERATU!

QUÉDATE EN CASA!

Apirileko ZER OTE herriko etxeetako buzoietara ez da iritsiko oraingoan, baina herritarren aldamenean jarraitu nahi dugu eta egoera berezi honetara moldatzeko gaitasuna ere badugula erakutsi nahi dugu. Kultura, euskara, irakurketa, sormena, kirola, hezkuntza, gazteria, komunitatea, sare sozialak, … gure egunerokoan duten garrantziaz ohartzeko balio digu bizitzen ari garen guztiak eta alor horiei ekin diegu. Guztion artean egiten badugu, aberasgarriagoa izango da!
Ezagutu prestatu duguna eta **GOZATU!**

ETXEAN ZAUDELA YOGA EGIN NAHI DUZU, ZUMBA PIXKA BAT, ALA, LASAI ESERITA, PATCHWORKEKO LANEN BAT?



ORAINTXE DUZU AUKERA, ZIZURKILGO KULTURA SAILEKO FACEBOOKEKO ATARIAN SARTUTA. ZIZURKILGO IKASTAROEN TUTORIALAK, ESKU-ESKURA.

*INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ONDOAN GAITUZU!*

## KULTURA

Zizurkilgo Udaleko Kultura Sailak hamaika ikastaro martxan ditu eta ikastaroetako irakasleei ikastaroak etxean jarraitzeko bideoak grabatzeko eskaera egin diegu. Bideoak iritsi ahala zintzilikatzen ari gara KULTURAKO FACEBOOKean. Bixita gaitzazu eta ekin gehien gustatzen zaizun horri!

VISITA EL FACEBOOK DE CULTURA Y DISFRUTA DE LOS VIDEOS DE LOS CURSILLOS QUE SE IMPARTEN EN ZIZURKIL




## GAZTERIA

GAZTEZULO izan da hasiera-hasieratik EGUNERO-EGUNERO erronkak proposatu dizkiena gazteei. Lehenengo astea ondoren, LEHIAKETA bat martxan jarri da GAZTEZULOTIK. Gazte, parte hartu eta sari eder bat irabazi astero! GAZTEZULOKO FACEBOOKean topatuko dituzu erronkak.

PARTICIPA EN LOS RETOS DIARIOS QUE ENCONTRARÁS EN EL FACEBOOK E INSTAGRAM DE GAZTEZULO.

## LIBURUTEGIA

PLAZIDA OTAÑOKO FACEBOOK kontua sua dariola dabil! Poesiaren nazioarteko eguna, Haur eta Gazteen Liburuaren Eguna, … hamaika aitzakia liburu artean murgiltzeko. Oraintxe irakurtzen ari zaren ARGAZKIA bidali:




SUMÉRGETE EN LAS PROPUESTAS Y CONCURSOS DE LA BIBLIOTECA PLAZIDA OTAÑO:




**IDAZMEN TAILERRA**: Oihana Iguaranek bideratzen duen idazmen tailerrak martxan jarraitzen du, teknologi berrien laguntzaz taldekideen artean ERRELATOAK sortuz. EUTSI SORMENARI! Eta nahikoa ez balitz, bi ARGAZKI LEHIAKETA martxan:







## EUSKARA

**HITZOLARIAK EKIMENA berriz martxan!**

2019ko EUSKARAREN EGUNAREN harira Tolosaldea osoan martxan jarri zen ekimena berreskuratu nahi dugu eta orduan bildu ez ziren HITZAK jaso nahiko genituzke:

Bakoitzarentzat esanguratsuak diren edo izan daitezkeen euskarazko hitzak ekartzea edo sortzea:
Hitz berriak;
Esanahi berria hartu duten aspaldiko hitzak;
Dagoeneko gutxi edo erabiltzen ez diren hitzak;
Herrian edo inguruan erabiltzen diren hitzak;
Gremio edo kolektibo jakinetan erabiltzen diren hitzak;
...
Animatu eta bidali zure HITZA:
bulegoa@zizurkil.eus

**EGIZU ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!**

Laster jasoko dugu etxean urteko ERRENTA AITORPENA. Gogora ezazu, hori ere, EUSKARAZ egiteko aukera duzula.




## OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK

HITZOLARIAK EKIMENA berriz martxan!

8-9 begirale kontratatuko dira ekainaren 22tik uztailaren 17ra lan egiteko. Deialdian parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da:

- 18 urteak beteak izatea edo 2020 urtean betetzea.
- Euskara ondo menderatzea.
- Begirale titulua izatea.
- Elkarrizketa-talde dinamika GAINDITZEA.
- Zizurkilen erroldatua egotea.

Izen emateak bulegoa@zizurkil.eus helbidera bidali beharko dira apirilaren 30a baino lehenago eta egoera normaltzen denean hautaketa egiteko moduaren inguruko xehetasunak emango dira.



SELECCIÓN DE MONITORES PARA EL OPORRETAN EUSKARAZ




## PAREKIDETASUNA

**Maskara-19**

EN ESTA SITUACIÓN, TAMBIÉN HAY ALGUIEN QUE PUEDE AYUDARTE